

Mikaela Arretxe
Ondarroa, Bizkaia (1917)

Aurkibidea

Biografia

Bi urte zituela ama tifusarekin gaixotu zen eta amamak baserrira eraman zuen. 16 urtera arte egon zen bertan. Ondarroan Ortizenean hasi zen lanean. Antzinako bizimoduaren inguruko kontu ugari kontazen ditu. 86 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.

Zintak

OND-001

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ramos Elordi, Ander
- **Data:** 2003-01-01
- **Iraupena:** 29 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Donostiatik Ondarroara

- **Erref:** OND-001/001
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Lea-Artibaiko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Mikaela Donostian jaio zen, eta bi urte zituela, amak tifusa hartu eta gaixotu egin zen. Ondorioz, amaren gurasoen baserrira joan zen, hamasei urteak bete zituen arte. Ereñozuko eskola txiki batean ibili zen, neska eta mutilak denak elkarrekin. Eskola bukatutakoan baserriko lanei ekin zien. Hamasei urterekin gurasoengana itzuli zen. Ortizenea fabrikan ibili zen lanean Ondarruan.

2. Senarra ezagutu zuenekoa

- **Erref:** OND-001/002
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:01:49. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Kofradia ondoan zirkua jarri ohi zuten. Bertara joan ziren bere laguna eta bera, bi mutilekin batera. Zinera eraman zuen mutilarekin nobiotan hasi zen Mikaela, eta beranduago ezkondu egin ziren.

3. Umea izandakoan, gerra etorri

- **Erref:** OND-001/003
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Ezkondu eta gerra etorri zen. Mikaelak umea eduki berria zuen, eta gizona gerrara joan behar izan zen. Sarritan umea hartu eta baserrira joaten zen, Hernanira. Ondarroatik irteteko baimen berezi bat behar izaten zuten. Erreketeak bi-hiru aldiz joan zitzaizkion Mikaelari, gorria zelakoan.</p>

Transkripzioa

<p>- 36xan gerri etorri zan eta, gerri etorri zanin, ba, bueno, ordurako, ba, ezkondu giñan. Ezkondu giñan ta ordun, ba, maixatzen 16xan ume bat euki neban, semi. Eta hillan... hori maixatzen, 36xan, gerran zerin. Eta juliuan etorri zan, ba, gerri, 18xan. Ta gero, ba, ni geatu nitxan Ondarrun ta neure gixona jun zan gerraa. Eta, klaro, gerran ibili zan batea ta bestea ta ni, ba, neure umiaz, ba, hamentxe Ondarrun. Eta sarritan juten nitxan, ba, neure umi hartu eta, ba, baserrire, neure aumana, ze aumak beti esaten ostan, ba, juteko eta halantxenik eta juten nitxan baserrire.</p>

<p>- Hori Hernanire?</p>

<p>- Hernanire, bai. Ba juten nitxan baserrire Hernanire umiaz, eta hantxe igual eitten neban, ba, hillebete, edo bi edo, hantxe. Ze ordun gerra denporan Ortizen fabriki be zarratute euanetik, ez dotsen /eztotzen/ lagaten iraitxen, ta ba hantxe. Ta gero, ba, etxea. Ta klaro, ordun hamendik urteteko salbokonduktu bihir ixaten zan. Ondarrutik urten bihir bagendun, salbokonduktu ataten neban.</p>

<p>- Hori zer zan permisú edo?</p>

<p>- Bai, permiso bat; bai, paper bat firmaten oskun eta, ba, hantxe auditorixan eitten oskuen hori. Eta, ba, hantxe emoten oskuen /emotezkuen/ [paperra], salbokondukto bat, ba, noa guzen ta dana. Eta juten nitxan hara. Eta gero, ba, hillebete edo ein ta etorten nitxan. Eta ba, bai, 2 ero 3 bidar etorri jatazen reketik ordun, ba, etxea, ze esaten otsela herrixan ba gorrixetaku nitxala. Klaro, gorrixak zin ordun ba Francon kontra ebizenak, ofizial... Eta grazixak hareaz salbokonduktuaz, haixe erakusten netsen zelanik neukan permisú.</p>

<p>- Demuestra, ez?</p>

<p>- Bai, haixe demostraten neban. Eta ha demonstra ezkeo, ba, bueno, ba ia libre lagaten ostan /laateoztan/, baiñe 2-3 bidar holantxenik etxea etorri jatazen deteniutea, ba, eskapa ein nebala gixonaana ta. Eta, ba, halantxenik, gero, ba, klaro.</p>

4. Senarra Bilbon atxilotu

- **Erref:** OND-001/004
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Erreketee Bilbo hartu eta Mikaelaren senarra atxilotu egin zuten. Umea amaren etxean utzi eta senarra bisitatzera joaten zen Bilbora. Askatu zutenean, Batallón de Trabajadoresen sartu zuten.

5. Gaztaroa Hernanin

- **Erref:** OND-001/006
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Baserrietan bizi ziren umeak batzen ziren jolasteko. Igandero Hernanin batzen ziren kartetan jolasteko. Osabak Donostian banatzen zuen esnea, baina oroitzen du Mikaelak, Jaunartzea egin zuen egunean osaba harengana joan zela.

6. Ondarruko fabrikan lanean

- **Erref:** OND-001/007
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:16:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Lea-Artibaiko lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ondarrura itzuli zenean, anai-arreba guztiak han hazi zirenez, baztertuta egoten zen Mikaela. Iritsi bezain laster, Ortizenea fabrikan.

7. Hernaniko eta Ondarroako euskara

- **Erref:** OND-001/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:09. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hernanin ikasitako euskara Ondarroan entzun zuenaren oso bestelakoa zen, baina segituan egokitu zen Mikaela.

8. Ama hernaniarra, aita pasaitarra

- **Erref:** OND-001/010
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:17:49. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita pasaitarra zuen, eta ama hernaniarra. Aitona ondarrutarra zuen, betiko arrantzale horietakoa.

9. Ezin ezpainak margotu

- **Erref:** OND-001/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Ahizpak beti margotuta joaten ziren, eta behin Mikaelari ezpainak margotu zizkioten, baina aitonak berriro etxera bidali zuen muturra garbitzera. Orduan, berak gaztetan izandako neska-lagun baten inguruko anekdota kontatu zion aitonak.</p>

Transkripzioa

- Eta zer da hori kontaten dozune ha lehena euki ebanela nobixa bat eta laga ein ebala ta...

- Aa... Bai. Ez, hori berak esan ostan /esastan/ holantxenik ez gakon gustaten pintxata-ta juteik. Baten holantxenik neuk e...

- Makillata?

- Bai, makillata. Eta egun baten, ba, nirin aitzak, neu baiño bat zaharraua, eta besti gazte, nire hurrengoku, eta harek beti ezpanak-edo beti pintxaten eben. Eta egun baten nik, ba, esan osten /esasten/ ze, zain euan bera behian, pasieta juteko, eta esan osten /esasten/ ze: "Mikaela, bixkat ezpanak pinttako dotsuauz /pintxakotzuauz/". Eta, ba, pintta ostezen "pintxaztezen" politto eta, ba, baja nitxan behera, neure etxetik behera, eta entrada baja nitxanin, beatu ostan /beatuztan/ ta esan ostan /esastan/: "Zu aide etxea eta garbittu hori arpeixoi". Ta orduntxe konta ostan /kontaztan/ zelan berai pasa gakon, ze, Pasain ibili zala itsasun, Pasain. Eta, klaro, han ein ebala, ba, nobixi ein ebala Pasain.

- Pasaiku?

- Nobixi ein ebala, bai. Eta, ba, guapi, guapisimi beti, bai, eta zeata enamorata euala beraz ta dana. Eta egun baten gerta zala aberixiaz etorri.

- Bafora?

- Bafora, bai. Aberixiaz etorri bafora, ta, klaro, ba, esan ebala eze "On Ondarrure jun biher na /bina/ etxea, amai eta aittai bisitti eittea" esan ebala, eta jun zala neskin etxea, ba, esatea, ba, Ondarrure datorrela. Eta neski, ba, klaro, urten ebala, diar ein otsanin /eitzanin/ urten ebala entrada, pintta baik eta ixte baik, ohittik altzatakako modun. Eta hain erun ebala desilusiñoi handixe, gehixa ez zala jun be ein berana. Ta horretxeaittik ez dabela nahi neu be pinttateik ixte be, eta ez dostan lagaten, ez dostan lagaten pintxaten be ez dostan lagaten.

10. Lehengo Ondarroa

- **Erref:** OND-001/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:22:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Oroitzen du arrantzaleak goizean goiz joan eta gauean berandu itzultzen zirela. Etxeetara joaten ziren ate-joka, emakumeei "despeskara" joateko eskatzen. Ordu txikietan ibiltzen ziren arrainak banan-banan saretik askatzen. Gero zortzietarako Ortizeneko fabrikara, lanera. </p>

Transkripzioa

<p>- Eta gero Ondarru bera be etorri ziñanetik asko aldatuko zan, ez?</p>

<p>- Ene! Bai, asko, asko, bai bai, bai. Ze lehen txalopak eta danak be zubi zaharreko haraxe juten zin, atuneruk, antxoeruk... danak hantxe.</p>

<p>- Kofrai zaharra…</p>

<p>- Bai, kofrai zaharra, bai, haraxe. Eta, baakixu... Eta oin, ostea, ba, ia, on han ez da halakoik ixte, ta lehen antxoata be sarritan juten zin, illuntzin jun eta goxin etorri. Eta gero, ba, hantxe, despeskan ta hori, ze goxin igual etortzen zin goixeko lauretan-edo txalopan, eta diar eitten oskuen igual. BUM, BUM, BUM, ati jotzen eben mazuaz eta “Fulanaaa, despeska etorteko!”. Eta eitten gendun, ba, despeska jun, ta hantxe txalopan jarri eta saretik bana-banan antxoak kentzen, ba, hantxe eoten giñan. Ta gero, handik urten ta zortziretan, ba, Ortizenea fabrika ostea be. Ta zer da hori danoi, ba, ba igual loguri [etorten] gaskun, igual filetik, eta Jose Ortizek –oin que en paz descanse, baiñe harek– esaten oskun: “Klaroo, despeskan biharrin ibiltzen zaze eta on fabrika etorri eta on lo ein” esaten oskun.</p>

<p>- Bronki botaten, gaiñea.</p>

<p>- Bai, bai, klaroo. Ia! Goixeko hiruretan-ta juten giñan despeska ta, han dana ein bana-bana, bana-banan, ta gero harek eindakun ostea be Ortizenea fabrikaa, eta han, filetin jarritte, ba, ia... loguri allaten gaskun ta...</p>

11. Urberuagako bainuetxea

- **Erref:** OND-001/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Amaren ahizpak asma zuen, eta Urberuagako bainuetxean egoten zen. Ondarroako jende asko joaten zen bertara lanera.

12. Igande arratsaldeak Mutrikun

- **Erref:** OND-001/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Igande arratsalde pasa joaten ziren Mutrikuko petrilera. Oinez joan ohi ziren Ondarroatik.

Arretxe, Mikaela | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com